


eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

# RUANDAKO GENOZIDIOA JUSTIZIA TRANSIZIONALAREN IKUSPEGITIK

---

ZUZENBIDE GRADU AMAIERAKO LANA 2019-2020

***Egilea: ANDER SALABERRIA GARCIA***

***Tutorea: JOXERRAMON BENGOETXEA CABALLERO***



Zuzenbide Fakultatea  
Facultad de Derecho

# AURKIBIDEA

<b>1-JUSTIZIA TRANTSIZIONALA</b> .....	3
1.1 ZER DA?.....	3
1.2 HELBURUA .....	3
1.3 GAUZATZEKO BIDEAK.....	4
1.4 GARAPEN HISTORIKOA .....	5
1.4.1 LEHENENGO FASEA.....	5
1.4.2 BIGARREN FASEA .....	6
1.4.3 HIRUGARREN FASEA .....	9
1.5 HISTORIAN ZEHAR ADIBIDEAK .....	10
<b>2-RUANDAKO KASUA</b> .....	12
2.1 TESTUINGURUA ETA KOKAPENA.....	12
2.2 GENOZIDIOAREN AURREKARIAK ETA AZTERKETA .....	14
2.3 GENOZIDIOAREN ONDORIOAK .....	16
<b>3-JUSTIZIA TRANTSIZIONALAREN IKUSPEGITIK HARTUTAKO NEURRIAK</b> .....	18
3.1 GAGACA COURTS .....	19
3.2 INTERNATIONAL CRIMINAL COURT FOR RWANDA (ICTR) .....	23
<b>4-GAGACAREN ALDEKO ETA KONTRAKO ARGUDIOAK</b> .....	25
<b>5-ICTRAREN ALDEKO ETA KONTRAKO ARGUDIOAK</b> .....	28
<b>6-HAUSNARKETAK ETA KONKLUSIOAK</b> .....	29
6.1 BELGIKA ETA FRANTZIAREN ROLA .....	29
6.2 JUSTIZIA TRANTSIZIONALA EGUNEROKO BIZITZAN? .....	31
<b>7-BIBLIOGRAFIA</b> .....	32

# **1. JUSTIZIA TRANTSIZIONALALA**

Izenburuan ikus daitekeenez, Justizia Trantsizionalari buruz arituko gara lan honetan, hain zuzen, Justizia Trantsizionalaren ikuspuntutik Ruandako genozidioaren inguruan hartutako neurriei buruz, gehienbat *gagaca* auzitegien eta ICTRaren lanari erreparatuz. Hori dela eta, gaia lantzen hasteko gure buruari egin behar diogun lehenengo galdera honako hau da: zer da Justizia Trantsizionala?

## **1.1 ZER DA?**

Justizia Trantsizionalaren Nazioarteko Zentroak (International Center for Transitional Justice ingelesez)<sup>1</sup> honela definitzen du: *Justizia trantsizionalak gatazka eta errepresio garaia atzean uzten dituzten herrialdeei erreparatzen die, eta giza eskubideen urraketa masibo edo sistematikoei aurre egiteko tresna eta bide ezberdineak planteatzen ditu. Giza eskubideen urraketa horien larritasuna dela eta, sistema judicial konbentzionalak ezin die erantzun egokirik eman, beraz, justizia trantsizionalak hartzen du parte egoerari irtenbide bat bilatzeko asmoz.*

Justizia mota honen deiturak dioen moduan, bi elementu edo kontzeptu nagusi daude: Justizia eta Trantsizioa. Baina derrigorrezkoa al da trantsizio bat ematea Justizia Trantsizionalak bere rola jokatzeko? Adituen artean planteatzen den galdera nahiko ohikoa da, batzuk diotelako zenbait kasutan zaila izaten dela estatu bat trantsizioan dagoen ala ez zehaztea; baina aldi berean, eta doktrinaren zati nagusi batek dioen moduan, trantsizioaren kontzeptuak ez du ehuneko ehunean eskatzen herrialde bat trantsizioan egotea, edota hala definitua egotea, baizik eta Giza Eskubideen urraketa masiboei aurre egiteko aukera bat suertatzea, nahiz eta txikia eta mugatua izan.

## **1.2 HELBURUA**

Orain arte, justizia trantsizionala definitu dugu, baina zein da bere helburua? Egia esan, Justizia trantsizionalaren helburuak aldatu egingo dira egoera bakoitzean, nahiz eta horien ezaugarriak honako hauek izango diren: gizabanakoen duintasuna aitortzea; eskubideen urraketak erreparatzea eta onartzea, eta horiek errepika daitezen eragozte.

---

<sup>1</sup><https://www.ictj.org/es>

Helburu horietaz gain, bestelako xedeak ere izan ditzazke, hala nola:

- Erakunde eta instituzio arduratsuak sortzea eta haiengan konfiantza berreskuratzea.
- Gizarte-sektore ahulenei justiziarako sarbidea ahalbidetzea, eskubideen urraketen ondoren.
- Emakume eta talde baztertuek gizarte justu baten bilaketan benetan parte har dezaten lortzea.
- Bake-prozesuak erraztea eta gatazketarako ebazpen iraunkorrak sustatzea.
- Adiskidetzea sustatzea.

### **1.3 GAUZATZEKO BIDEAK**

Arestian aipatu dugun bezala, definizio bat ematerako orduan hain zuzen, Giza Eskubideen urraketak oso larriak izaten dira eta beraz ezin zaie justizia konbentzionalaren bidetik, edota modu ohiko batean aurre egin. Hala ere, normalean, lau ikuspuntu ezberdinetatik ekiten saiatzen da:

1. **Prozesu penalak**, krimen larrienen erantzule nagusien aurkakoak behintzat.
2. Organo ez-judizialek egindako eskubide-urraketei buruzko "egia argitzeko" prozesuak (**egiaren batzordeen** bidez). Askotariko ekimenak dira, baina gertakarietan ez ezik, horien kausetan eta ondorioetan jarri ohi dute arreta.
3. Hainbat modutako **konponketa edo erreparazioak** (banakakoak, kolektiboak, materialak eta sinbolikoak)
4. Polizia, justizia, armada eta informazio militarreko zerbitzuei eragin diezaieketen **erreforma juridiko eta instituzionalak**.

Ikuspegi horiek ez dira elkarren baztertzailatzat jo behar. Adibidez, egiaren batzordeek ez dituzte prozesu judizialak ordezkatzeko. Haien helburuak desberdinak dira, onarpen-maila handiagoa eskaintzen dutelako eta ukazioaren kulturari aurre egiten diotelako. Era berean, erreforma konstituzional, juridiko eta instituzionalek ez dituzte beste neurri batzuk baztertzen; aitzitik, konfiantza berreskuratzea eta abusu berriak ekiditzera jotzen dute zuzenean.

Bestalde, aipatu beharra dago, zerrenda hau ez dela itxia, hau da, ikuspuntu edo irtenbide ezberdinak planteatzea posible da, eta zenbait kasutan gomendagarria. Bilatu behar dena zera da, egoerari eta urraketei aurre egiteko eta horiek berriz gertatzea ekiditeko aukera hoberena, abusuak jasan dituzten herritarrei hurbilduz.

## **1.4 GARAPEN HISTORIKOA**

Logikoa denez, Justizia Trantsizioanala ez zen gaueetik egunera sortu, prozesu luze bat jasan du gaur egun ezagutzen dugun moduraino heldu arte. Garapen historikoaren inguruan aditu asko aritu dira, baina Ruti G. Teitel<sup>2</sup> irakasle adituak oso ondo islatzen du “Genealogía de la Justicia Transicional” izeneko testuan. Bere aburuz, justizia trantsizional modernoaren aurrekariak Lehen Mundu Gerra ostean koka daitezke, baina hala ere autore honek hiru fase ezberdinetan banantzen du bere garapen historikoa. Lehenengo fasea, II.Mundu Gerra ostean hasiko litzatekeena, hor bilakatzen delako ezohiko eta nazioarteko tresna bat; bigarrena, berriz, Gerra Hotzaren garaian; eta azkenik, hirugarrena, XX.mende amaieran.

### **1.4.1 LEHENENGO FASEA**

Esan bezala, lehenengo fasea, II.Mundu Gerra bukatu ostean sortu zen, Nuremberg-eko epaiketekin<sup>3</sup>. Dena den, prozesu hau lehenago hasi zen XX. mendean, Lehen Mundu Gerraren ondoren, baina bi gerren arteko aldian, justiziaren helburu nagusia gerra bidegabeari mugak jarri eta nazioarteko komunitateak ezarritako zigor justifikagarri baten parametroak mugatzea zen.

Nuremberg-eko epaiketak biziki garrantzitsuak izan ziren, Justizia Trantsizionalaren garapenerako, Nazioarteko Zuzenbidearen eskemaren barruan justizia mota honen garaipena islatzen dutelako. Hala ere, garapen horrek ez zuen iraun, gerraosteko baldintza politiko bereziekin lotuta zegoelako. Aldi berean, Alemaniaren subiranotasun urratuak nazioarteko ahaleginak ezarri zituen berreraikuntza nazionalen alde, eta honek ere ez zuen lagundu. Kasu honetan, baldintza politikoak bakarrak izan ziren, baina, esan bezala, ez zuten iraun eta ez ziren berriro gertatuko gertatu ziren modu berean.Zirkunstantzia hauek zirela medio, justizia trantsizionalaren lehen fase hau,

---

<sup>2</sup> Ruti G.Teitel Argentinan jaio zen 1956ko urriaren 5ean. “New York Law School”-en irakaslea da eta justizia trantsizionalean oso aditua

<sup>3</sup> Nurembergeko epaiketak: 1945eko azaroaren 20-1946ko urriaren 1a

estatuen arteko lankidetzarekin, gerra-krimenen prozesuekin eta zigorrekin lotuta zegoena, goiz amaitu zen. Halere, gizateriaren aurkako krimenak edo genozidio bezalako delituak ad hoc auzitegi baten bitartez aztertu ziren, eta ez zen onartu arrazoi bidezkotzaile bezala agintariak aginduak betetzen ari zirela inbokatu izana.

Testuinguru honetan, nahiz eta fase hau oso luzea ez izan, galdera ezberdinak planteatu ziren. Helburua ez zen Alemania bere erasoagatik zigortzea, hori gerra zuzenbidearen baitan kokatuko litzatekeelako, baizik eta biztanleria zibilaren aurkako erasoak, gizateriaren aurkako krimenak eta fiskaltzaren ikuspuntutik gutxienez, genozidio krimenagatik zigortzea. Honek, beste eztabaida bat plazaratu zuen, hala nola, zenbateraino egin behar zen hori, eta zer forma hartu beharko lukeen justiziak: nazionala edo nazioartekoa, kolektiboa edo indibiduala. Kontuan hartu beharreko beste faktore bat subiranotasunaren faktorea izan zen. Dakigunez, garai hartan Europar Batasuna sortu gabe zegoen oraindik, beraz, nazioarteko prozedurak ezartzea ez zen erraza, eta gauzak are gehiago zailtzeko, subiranotasun nazionalaren eta nazioarteko gobernagarritasunaren gainean mugak zeuden. Gaur egunerrazago ikusi eta ulertzen dugu Estatuen subiranotasunak duen papera Europar Batasunaren existentziarekin, baina garai hartan nazioarteko prozedurak ezartzeko zailtasunak oso agerian zeuden, jakinda gainera momentuko egoera soziopolitiko eta geopolitikoak ez zutela batere laguntzen.

Teitel-en aburuz, fase honetan, justizia trantsizionalaren arauaren helburua erantzukizunak zehaztea zen, baina garai hartako berrikuntza ikaragarria Nazioarteko Zigor Zuzenbiderantz biratzea eta haren aplikagarritasuna Estatutik haratago hedatzea izan zen, hau da, gizabanakoari aplikatzea. Gainera, Gerra Zuzenbidean eta bere erantzukizun kriminaleko printzipioek jasandako aldaketen bidez, nazioarteko lege sistemak Reicheko goi agintariak burututako krimenen eta politika errepresiboen erantzule egitea ahalbidetu zuen.

#### 1.4.2 BIGARREN FASEA

XX. mendeko azken bi hamarkaden ezaugarri nagusia trantsizio politikoen benetako olatua izan zen. Sobietar Batasunaren kolapsoak, boterearen balantze bipolarren amaierak eta demokratizazio politiko eta modernizazio prozesuen ugalketa

konkomitanteak justizia trantsizionalaren gerraoste hotzaren fasearen hasiera ekarri zuten.

Sobietar Inperioaren gainbeherak eta, azkenik, kolapsoak, olatu liberalizatzaile bat piztu zuen, Hego Amerikako Hego Konoan 70eko hamarkadaren amaieran eta 80ko hamarkadaren hasieran trantsizioekin hasi zena. Honek Ekialdeko Europan eta Erdialdeko Amerikan zehar jarraitu zuen. Eskualdeetako gertaera horiek, oro har, elkarrekiko independenteak diren bitartean, ikuspegi genealogiko batek trantsizio politiko horien arteko lotura argitzen du, eta bipolarismo sobietar eta estatubatuarrek zenbait gatazka lokalen alde egin zutela argitzen du.

II. faseak, I. faseak bezala, ahalmen mugatua du subiranotasun-forma erabat desberdinak dituzten testuinguru politikoetara transferitzeko. Hala ere, II. fasean nazioarteko epaiketarik egon ez arren, jurisprudenzia trantsizionala aztertzeak erakusten du Nazioarteko Zuzenbideak errol konstruktiboa izan dezakeela, trantsizioan dagoen gizarte batean epaiketa nazionalak gidatzeko zuzenbide-estatuaren beste iturri bat emanez.

Ildo horretan, nazioarteko lege-arauak baliagarriak dira zuzenbide-estatuaren jarraitutasun- eta sendotasun-pertzepzioa eraikitzeko. Nurembergen ereduaren esanahi sakon eta iraunkorra honetan datza: zuzenbide-estatuaren definizioaren bidez, unibertsalizazio-terminoetan, eredu estandar bihurtu da, eta bertan kokatzen dira ondorengo justizia trantsizionalari buruzko eztabaida guztiak. I. faseko justizia-politikak giza eskubideen gehiegikeriak zigortzeko legitimitatea besterik ez zuen hartu; II. fasean, berriz, zigorraren eta amnistiaren arteko tentsioa zaildu egin zen aldaketa politikoko aldiek berezkoak zituzten dilemak onartu eta aitortzearekin.

Justizia trantsizionalak, bigarren fasean, islatu zuen justiziaren balantzan jarritako balio garrantzitsuak ez zirela zuzenbide-estatu ideal batenak. Helburua legitimitatea sustatzea eta sendotzea zen lekuetan, pragmatismoaren printzipioek gidatu zuten justizia-politika eta zuzenbide-estatuarekiko atxikimenduaren zentzua. Jurisprudenzia trantsizionala justizia inpartzial eta inperfektuari lotu zitzaion, eta Teitel-ek zehaztuen duen bezala, honen ondorioz, bigarren fase hontan, justizia-ikuskerak ugari sortu ziren.

Egia da baita ere, Justizia trantsizionalari buruzko hausnarketak hobeto ulertzen direla benetako errealitate politikoetan eta trantsizioaren testuinguru politikoan kokatzen

direnean, aurreko erregimenaren ezaugarriak barne hartzen dituztenak, baina baita kontingentzia politiko, juridiko eta sozialak hartzen dituztenen kasuetan ere. Justiziaren aplikazioa jazartzeko egingarritasuna eta justizia horrek zuzenbide trantsizionaleko estatuari laguntzeko duen gaitasuna aurretiazko krimenen eskalaren mende zegoen, baina baita krimen horiek sistematiko bihurtu eta Estatuaren aparatuak babestu zituen mailaren mende ere.

Dakigunez, zigor zuzenbideak, eta are gehiago nazioarteko zigor zuzenbideak berebiziko garrantzia izan du eta oraindik ere badu justizia trantsizionalaz hitz egitean. Faktore honek, hau da, zigor zuzenbidearen garrantzia honek, zuzenbide mota honen bidez gertaeren erantzukizuna baliatzeko saiakerak ekarri zituen. Saiakera honek, askotan, zuzenbide-estatuaren berezko dilemak sortu zituen, legearen atzeraeraginkortasuna, dauden legeen aldaketa eta manipulazio bidegabea, prozesuaren menpe jartzean selektibitate-maila handia eta behar besteko autonomiarik gabeko botere judiziala barne. Horregatik, zigor-arloko justizia ezartzeak irregulartasun horiek eragin zituen neurrian, justiziak zuzenbide-estatu bat berrezartzeko egin dezakeen ekarpena indargabetzeko arriskua izan zuen. Demokrazia ahuletan, zeinetan zigorren eta zigorren administrazioak dilema zorrotzak sor ditzakeen zuzenbide-estatuaren gainean, legearen erabilerak sortutako kontraesanak handiegiak bihur daitezke.

Bigarren fase honetan justizia trantsizionalaren administrazioan dauden tentsioak direla eta, I. faseari lotutako justizia-printzipioak gero eta gehiago zalantzan jarri ziren. I. faseko gerraosteko justizia-proiektuari emandako erantzun kritiko batean, II. fasea ordainsari edo erretribuzio justiziatik haratago joan zen. II. fasean jokoan zeuden trantsizio-dilemak aurreko erregimenari aurre egiteko eta erantzukizunak eskatzeko praktika soiletik haratago zeuden terminoetan kokatu ziren, eta gizarte oso baten zauriak sendatzeko eta zuzenbide-estatu baten hainbat balio txertatzeko moduari buruzko galderak sartu ziren, hala nola bakea eta adiskidetzea, neurri handi batean aldeztatik trantsizio-justiziaren proiektutik kanpo tratatu zirenak. Ondorioz, nazioarteko justiziarekin lotutako epaiketak bertan behera uzteak justizia trantsizionalaren ulermenean aldaketa bat islatu zuen, nazioa berreraikitze baldintza politiko konplexu eta askotarikoenekin elkartzera etorri zena.

II. fase honen testuinguruan, demokraziarako trantsizio eta nazioen berreraikitze gero eta ugariagoekin, justizia trantsizionalak zuzenbide-estatuaren gaineko funtsezko



kontzesioak egitea esan nahi izan zuen. Horregatik, hasiera batean I. faseko justizia trantsizionalak zuzenbidean izan zezakeen hedadura mugagabea eta unibertsaltasuna onartzen zuela zirudien arren, bigarren fasean hura testuinguruari, mugari eta behin-behinekotasunari lotuago zegoela aitortu zen. Azken batean, gerraosteko trantsizioetan tokiko erantzukizuna azpimarratzeak historikoki askoz ere zabalagoa zen gatazka bipolar baten ikuspegi partzial eta distortsionatu bati erantzun zion. Izan ere, II. faseantokian tokiko edo nazio edo estatu mailako justizia-moduez baliatzea erabaki zen, eta horrek erantzun kritikoa eman zion I. faseari.

#### 1.4.3 HIRUGARREN FASEA

Fase hau justizia trantsizionalaren egoera egonkor eta finkatua izan daiteke. Hitzaldia periferiatik erdigunera joan zen. Gorago eztabaidatu zen bezala, badirudi milurteko berria justizia trantsizionalaren hedapenarekin eta normalizazioarekin lotuta dagoela. Historikoki gatazka osteko ohiz kanpoko baldintzekin lotutako legezko fenomenotzat hartzen zena, badirudi gaur egun geroz eta ohikoagoa bilakatu zaigula. Bake garaiko gerra, zatiketa politikoa, estatu ahulak, gerra txikiak eta etengabeko gatazka, guztiak dira gaur egungo baldintza politiko bereizgarriak. Gaur egungo gertaera horiek justizia trantsizionalaren normalizazioa lortzeko ahalegina bultzatu dute, eta, azken batean, ondorio anbibalenteak ekarri dituzte. Aldaketa politiko iraunkorari lotutako teoria denez, justizia trantsizionala zuzenbidearen politizazio altuagoarekin eta zuzenbide-estatuaren estandarretan nolabaiteko kontzesio mailarekin lotzen da.

Trantsizio-teoriaren normalizazioaren sinbolo ezagunena I. faseko erantzuna finkatzea da, *Nazioarteko Zigor Auzitegiaren* (Tribunal Penal Internacional gazteleraz) forman, XX.mendearen amaieran ezarritako nazioarteko erakunde berria. Epaitegi horren aurretik, Balkanetako eta Ruandako gatazka genozidei erantzuteko ad hoc nazioarteko auzitegi kriminalak deitu zituzten. Bigarren Mundu Gerra amaitu eta mende erdira, Nurembergen ereduaren finkapena sinbolizatzen du Nazioarteko Zigor Auzitegiak: nazioarteko auzitegi iraunkor bat sortzea, gerrako, genozidioko eta gizateriaren aurkako krimenen egileak auziperatzeko, Nazioarteko Zuzenbidearen mendeko errutinazko gai gisa. Zalantzarik gabe, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioranzko atzerabidean gizabanakoaren eta Estatuaren arteko harreman konplexua sartzen da, nazioarteko komunitateari erregimen bateko liderren erantzukizuna baliatzea eta jazarpen-politikak gaitzestea ahalbidetzen dion lege-eredu gisa, baita kasuan kasuko Estatutik kanpo

gertatzen direnean ere. Are gehiago, nazioarteko justizia mota berezi horrek erregimen bat deslegitimatzeko potentziala eskaintzen du, eta horrek trantsizioa bultzatu dezake.

III. faseko justizia trantsizional iraunkorraren nozioa agerikoa da sistema humanitarioaren hedapenean, hedatu egin baita eta Giza Eskubideen Zuzenbidearekin bat egin baitu. Legezko diskurtso humanitarioan moraltasun unibertsaleko, hau da, giza eskubideetan oinarritutako zuzenbide natural edota unibertsal berezi baten hizkuntza batera jotzea justizia trantsizionalean egin berri diren garapenen antzekoa da. Justizia trantsizionalaren itxurazko normalizazioa ere agerikoa da diskrezio politiko handiagoa, justiziaren erabileren politizazioa, prozedura oso irregularren agerpena eta zuzenbide nagusiarekiko urruntze esplizituak onartzean, hori guztia termino humanitarioetan justifikatzen delako.

Laburbilduz, eta Teitel-ek bere genealogian planteatzen duen hirugarren fase honekin amaitzeko, fase honi buruz esan beharreko ezaugarri garrantzitsuenak honako hauek dira: XX. mendearen amaiera aldera justizia trantsizionalaren hirugarren fasea edo egoera egonkorra sortu zela eta fase hau globalizazioarekin lotuta dagoela, nahiz eta aldi berean indarkeria nabarmeneko eta ezegonkortasun politikoko baldintzek ere tipifikatzen duten. Aipagarria da baita ere Justizia trantsizionala arauaren salbuespenetik helarazten dela, hain zuzen zuzenbide-estatuaren paradigma bihurtzeko. Gaur egungo fase honetan, jurisprudenzia trantsizionalak justizia humanitarioaren diskurtso zabaldua normalizatzen du, nonahiko gatazkekin lotutako zuzenbidearen organikotasuna eraikiz.

## **1.5 HISTORIAN ZEHAR ADIBIDEAK**

Ikusi berri dugu justizia trantsizionalak historian zehar izan duen garapena, fasez fase. Fase horiek aztertzen aritu garen bitartean, zenbait kasu edo gatazka agertu dira, hala nola, Nuremberg-eko Auzitegia, Balkanetako eta Ruandako gatazka edota Hego eta erdialdeko Amerikan suertatutako gatazka ezberdinak. Hala ere, aztergai dugun kasu konkrituaren, hau da, Ruandar kasuaren, azterketarekin hasi baino lehen, historian zehar edota gaur egun justizia trantsizionalaren presentzia izan duten herrialde ezberdinak aipatzea ondo legoke.



Esan dezakegu, justizia trantsizionalaren adibide nagusi eta famatuena Nuremberg, Yugoslavia, Colombia, Argentina, Hego-Afrika eta abar direla, baina egia esanda, eta mapa honetan ikus daitekeen bezala, mundu guztian zehar justizia trantsizionalak izan duen presentzia nahiko zabala da, bai Asian, bai Amerikan, bai Afrikan eta baita Europan ere garrantzitsua izan delako gatazka ezberdinei aurre egiteko.

Honetaz gain, Nazio Batuen Erakundeak 2014.urtean “*Justicia Transicional y Derechos Económicos, Sociales y Culturales*” testua argitaratu zuen. Bertan, historian zehar gertatutako adibide ugari aipatzen dira, arazoari irtenbide bat bilatzeko erabilitako estrategia azalduz. Hau guzti hau jakinda, eta mapa ikusita, adibide nagusiak aztertzeraz ekingo diogu.

Hego eta Erdialdeko Amerikan adibide ugari daude, hala nola; Argentina, Txile, Colombia, Nicaragua, Guatemala, Perú, Brasil...

Afrikan ere hainbat gatazka eman dira historian zehar, hain zuzen: Liberia, Hego-Afrika, Ruanda, Uganda, Gambia, Boli Kosta, Sierra Leona, Sudan...

Asian ere badaude kasu ezberdinak, baina ezagunenak Nepaleko gatazka eta Camboyakoko gatazka dira, azken hau desagertu gehien dituen herrialdea izanik.


Europa mailan, eskala handi batean ezagunak dira Bosnia-Herzegovina eta Nurembergeko gatazkak, baina hala ere, eta uste baino gertuago, bestelako gatazka batzuk ere eman dira, esaterako: Irlandako gatazka; Frantziar *Papon* prozesuaren bidez,

Arjelian Maurice Papon politikari eta kargu altuak zuzendutako krimenengatik; Espainian, “Ley de Memoria Histórica” delakoaren bidez, eta Garzón epailearen saiakeren bidez, Espainia baita Camboyan atzetik desagertu gehien dituen herrialdea; eta baita Euskal Herrian ere.

Atal txiki honekin agerian jarri nahi dena zera da, Justizia Trantsizionalaren presentzia uste baino zabalagoa eta handiagoa dela, eta aldi berean, gure inguruan ere (Frantzia, Espainian, Euskal Herrian...) justizia trantsizionalaren beharra duten Giza Eskubideen urraketa masiboak gertatzen direla.

## **2. RUANDAKO KASUA**

### **2.1 TESTUINGURUA ETA KOKAPENA**



Ruandan gertatutako genozidioa ulertzeko, edo ulertzen saiatzeko, ez baita erraza, eta genozidio hori zer nolako egoerak bultzatu zuen jakitzeko, ezinbestekoa da Ruandaren testuinguruari eta kokapenari erreparatzea.

Ezkerreko mapa honen puntu gorri horretan ikus daitezkeen bezala, Ruanda Afrikako eki-erdialdeko herrialde txiki bat da, 26.338 km<sup>2</sup> ditu, hau da, ideia bat egiteko Belgikak 30.689 km<sup>2</sup> ditu, beraz, esan dezakegu herrialde nahiko txikia dela. 2018an 12.3 milioi biztanle zituen (467 biztanle kilometro karratu bakoitzeko) eta bere hiriburua Kigali da. Eskuineko mapan ikus dezakegunez, Ugandak, Tanzaniak, Kongoko Errepublika

Demokratikoak eta Burundik inguratzen dute Ruanda, eta datu hau genozidioaren egitateak aztertzen sartzen garenean baliagarri izango den zerbait da.

Ikuspuntu ekonomiko batetik, “*Expansión*”<sup>4</sup> egunkariak Ruandaren kontextualizazio eta kokapenerako interesgarri izan daitezkeen datu adierazgarri batzuk aztertu zituen. Datu hauen arabera, Ruanda, bere Barne Produktu Gordina (BPG) kontuan hartuta, munduko ekonomien artean 145.postuan egongo litzateke. Bere *per capita* errenta 2018.urtean 655 eurokoa izan zen, mundu mailako *ranking*-etan 175.postuan egongo litzatekeena. Hori dela eta, argi eta garbi ondorioztatu dezakegu, Ruandar biztanleriak mundu mailako bizi-maila oso txikia dutela. Gainera, Nazio Batuen Erakundeak egiten duen “*Índice de Desarrollo Humano*” ikerketak adierazten duena zera da, Ruandarrak munduan bizi-kalitate txarrean dutenen artean daudela. Beste datu aipagarri bat ustelkeri edo korrupzioarekin lotuta dago, “*Índice de la Percepción de la Corrupción del Sector Público*” ikerketari erreparatzen badiogu, ikus daiteke Ruanda 180 herrialdek osatutako *ranking* batean 48.postuan aurkitzen dela. Beraz, ustelkeri maila nahiko altua da Ruandan.

*Ryszard Kapuściński*<sup>5</sup> idazle, kazetari eta historialari poloniarren “*Ébano*” izeneko liburuan oinarrituz, Ruandaren erretratu bat egiten saiatuko gara. Aipatutako liburu honek hainbat Afrikar herrialderen egoera eta istorio ezberdinak kontatzen ditu, eta autoreak Ruandari kapitulu bat aitortu zion. Kapitulu horretan bertan esaten den bezala, eta goiko mapan ikus daitezkeen bezala, Ruanda Afrikar kontinenteko erdiko puntua da. Nahiz eta Afrikaren ezaugarri nagusienetako bat bere lautadak diren, Ruanda herrialde oso menditsua da, eta hori dela eta, Afrikako Tibet-a deitzen diote. Hala ere, berezitasun hau ez da soilik geografian ikusten, gizarte antolakuntzan ere berezitasunak daude. Ohikoa denez, Afrikar herrialdeak, orokorrean, multitribalak izaten dira, eta adibide gisa bere inguruko Kongoko Errepublika Demokratikoa hartzen badugu, zeinean 300 tribu ezberdin bizi diren, zaila da imajinatzea Ruandan tribu bakarra dagoela, banyaruanda tribua hain zuzen. Baina, banyaruanda tribu hau 2 kasta nagusitan banatzen da, genozidioaren aktore eta protagonistak izango direnak. Indiako kasta-sistema ezagunarekin zerikusi handia du Ruandar sistema honek, alegia. Alde batetik

---

<sup>4</sup><https://datosmacro.expansion.com/paises/ruanda>

<sup>5</sup> Ryszard Kapuscinski (1932-2007). Idazle, historialari eta kazetari poloniarra. *Time*, *The New York times*, eta beste hainbat erakundeetan lan egin zuen.

*tutsi* taldea dago, artaldean jabeak dira eta gizartearen %14-a osatzen dute; eta bestetik, *hutu* taldea, nekazariak direnak eta gizartearen %85-a osatzen dutenak; eta azkenik, faltatzen den %1-a *twa* taldeak osatzen du, baina ez dugu talde hau landuko.

Afrikako Tibet-a bezala ezagutzen dela esan dugu, beraz, mendiek babesten dute, eta historikoki, ez zuen beste herrialdeekin inolako harremanik izaten. Hori dela eta, oso berandura arte, XX.mendea hasi arte gutxigorabehera, ez zen atzerritar biztanlerik herrialdean sartu eta beranduago arte ere, ez zuten esklabutza trafikoa berririk izan. Gainera, urteetan zehar ez zuten jakin ezta kolonizaturik zeudenik ere, Berlineko Konferentzian Alemaniari eman zitzaion Ruanda, baina ez zuten interes handirik erakutsi. Egia esanda, ez zegoen interes handiko lehengai edo bestelako produkturik, eta honen froga hau da: Monarkia zen Estatua antolatze modua eta erregearen gauza baliotsuena bere ganadua zen.

Lehen Mundu Gerraren ostean, Alemaniak Ruanda galdu eta Belgikak bereganatu egin zuen. Belgikak ere ez zuen interes handirik erakutsi eta pixkanaka, XX.mendearen erdialdera, aipatutako bi kasta nagusien (*tutsi* eta *hutu*) arteko gatazka bat sortu zen, urte batzuk beranduago Genozidioan bukatuko zena.

## **2.2 GENOZIDIOAREN AURREKARIAK ETA AZTERKETA**

Genozidioa 1994.urtean gertatu zen, baina gatazka ez zen egun batetik bestera sortu, askoz atzeragotik hasi zen gertatzen. Esan bezala, Ruandaren lehen kolonizatzailea Alemania izan zen, 1897.urtean. Hala ere, aipatu dugunez, Lehen Mundu Gerraren ostean, 1919.urtean hain zuzen, Belgikak bereganatu zuen. Dakigunez, Ruandan tribu bakarra zegoen, kasta ezberdinetan antolaturik, baina Ruandar historia prekoloniala kontuan hartuta ez ziren etnikoki banandutako taldeak, hau da, klase ekonomiko-sozial ezberdinak ziren, baina talde etniko eta gizarte errealtate bakarra osatzen zuten.

Orduan, nola bilakatu ziren bi talde etniko ezberdin? Historialari askok diote hau dela Ruandar historiaren baitan argitzeko dagoen punturik zailena, baina argi eta garbi Belgikar interesek rol oso garrantzitsua jokatu zuten.

Belgikaren kolonizazioak Ruandar egoera sozial eta judiziala zeharo aldatu zuen. Alde batetik, Belgiarrek Ruandar gizartea bi taldetan banandu zuten, *tutsi* boteretsuak eta hauen mende zeuden *hutu* biztanleak. Egoera honek, diskriminazio etnikoa instituzionalizatu egin zuen, eta honek gizartean efektu negatiboak eragin zituen.

Honen ondorioz, 1959.urtean Hutuen iraultzari hasiera eman zitzaion, hau da, Hutuek, haien diskrimazio eta Tutsien menpeko egoerarekin nazkaturik, gizarte antolakuntzari buelta ematen saiatzea erabaki zuten, Gerra Zibil bati hasiera emanez. Hau ere ez zen sinpleki gauzatu, Gerra Zibil honetan ere, diskriminazio etnikoarekin bezala, Belgikak zerikusi handia izan zuen; Afrikan bultzada independentista pil-pilean zegoen, eta Tutsi gobernuak independentzia eskatzen zuen, baina Belgika ez zegoen horretarako prest, eta bere egoera koloniala salbatzeko, taktikaz aldatu eta Tutsiak babestu beharrean Hutuengana jo eta hauen alde jarri zen. Taktika aldaketa honen lehen ondorioa eta ondorio nagusia aipatutako Gerra Zibila izan zen. Pentsa dezakegu gerra honekin lortu nahi zena boterea zela, eta zati txiki batean logikoa da, baina benetan lortu nahi zena lurra zen. Badaude Afrikan bestelako adibide batzuk zeinetan lurra lantzen dutenak lurraren jabe direnen aurka altxatzen diren, baina beste herrialde hauek Ruanda baino dexente aldiz handiagoak dira, eta beraz, bando batek lur zati bat okupatu dezake, eta beste bandoak beste lur zati bat, era horretan gatazka baretuz. Aurretik aipatutako Ruandaren zabalera eta biztanleria dentsitatea kontuan hartuta, hau ezinezkoa da, eta irtenbidea batzuk alde egitea edo hiltzea da. Ruandan biak gertatu ziren, alde batetik, kalkulatu da ehunka mila tutsi erail zirela eta beste hainbatek Kongo, Uganda, Tanzania eta Burundira ihesi joan zirela. Hau guzti hau gertatu eta gero, 1962.urtean Ruandak bere independentzia eskuratu eta Hutu gobernu bat ezarri zen boterean, Grégoire Kayibanda<sup>6</sup> kazetariaren mandatupean.

Aurreko atalean esaten den bezala, Ruandaren kokapenak zer esan handia izan zuen gatazkaren garapenean. Mapan ikus daitekeenez, Kongok, Ugandak, Tanzaniak eta Burundik inguratzen dute Ruanda, eta 1962.urteaz geroztik, dakigunez, tutsiak herrialde horietan errefuxiatu ziren. Herrialde haietan antolatu eta mendekua hartzen saiatu ziren etengabe, inguruko herrialde haietatik Ruanda erasotzen. Hutu eta Tutsien arteko sarraskiak behin eta berriz errepikatzen ziren, milaka pertsonen heriotza eraginez aldi bakoitzean.

Egoera kritiko hau aprobetxatuz, Ruandar ejerzitoaren buruak, Juvénal Habyarimana-k<sup>7</sup> hain zuzen, estatu-kolpe bat jo eta presidente gisa izendatu zuen bere burua. Ekintza

---

<sup>6</sup> Grégoire Kayibanda (1924-1976). Ruandako bigarren presidentea, demokratikoki aukeratutako lehenengoa. Mandatuan egon zen 1962-1973 bitartean

<sup>7</sup> Juvénal Habyarimana (1937-1994). Hutu etniako militar eta politikoa

honek hutuen baitan liskarrak sortu zituen, baina hala ere, 21 urtez, hau da, 1994.urtera arte, Ruandako presidentea izan zen.

Berriz ere gatoz herrialde mugakideen garrantziarekin. Hau guztia gertatzen ari zen bitartean, Ugandan errefuxiatuak zeuden tutsiak antolatzen hasi ziren, oso ondo prestatuak gainera, eta benetako mendekua hartzeko konbentzituak. “*Rwandan Patriotic Front*” (RPF) sortu zuten eta 1990eko irailaren 30ean Uganda utzi eta Ruandan sartu ziren. Ez hutu gobernuak ez beste inork ez zuen espero, eta egoera are gehiago larritzeko, Habyarimana presidentearen ejerzittoa ez zen oso indartsua eta ez zuen erresistentzia asko jarriko. Puntu honetan, eta aditu askoren aburuz hau izan zen beranduago gertatu zen genozidioa ekiditzeko momentua, egoera guztiz aldatuko zuen dei bat egin zen. Habyarimana presidenteak François Mitterrand<sup>8</sup> frantziar presidenteari deitu zion laguntza eske, eta honek Frantziar konpainia batzuk bidali zituen Ruandara, era horretan Hutu gobernu babestuz, eta momentu hartan gertatzeaz zegoen gerra atzeratuz.

Beraz, 1990.urteko bukaeratik aurrera bi bandoak “*stand by*” egoeran zeuden, eta esan daiteke, gatazka puntual batzuk kenduta, 1990-1994 bitartean hala egon zirela, eta bake-akordio bat eta guzti sinatu zuten. Halere, ez bake ez gerra egoera horrek ez zuen asko iraun eta 1994ko apirilaren 6an genozidioa hasteko “*casus belli*”-a gertatu zen, identifikatu gabeko elementu batzuek Habyarimana presidentearen hegazkina bota eta bertan hil zelako. Momentu hartatik aurrera, eta hurrengo hiru hilabeteetan, hutuek gidatutako sekulako sarraskia gertatu zen.

Nahiz eta hutuek genozidioaren gidari izan, eta hildakoen zati nagusia tutsiena izan, genozidioaren amaiera Paul Kagame-k gidatutako RPFaren garaipenarekin gertatu zen. 1994ko uztailean Kigali hartu zuten, eta horrek ofizialki amaiera suposatu, eta aldi berean aurreko hutu gobernu Kongon errefuxiatzera behartu zuen.

### **2.3 GENOZIDIOAREN ONDORIOAK**

1994ko apirilaren 6tik uztailearen 4ra bitartean, kalkulatzen da 800.000-1.000.000 ruandar biztanle artean hil zirela. Gaur egun Ruandako presidente den Paul Kagameren<sup>9</sup>

---

<sup>8</sup> François Mitterrand (1916-1996). Frantziar Errepublikako presidentea 1981-1995 bitartean, karguan gehien egon den presidentea.

<sup>9</sup> Paul Kagame 1957an jaio zen. RPFaren gidaria izan zen eta 2000.urteetik Ruandako Presidentea da.



esanetan, genozidioak Ruandar guztien bizitzan izan zuen eragina, ruandar bakoitza delako, edo biktima, edo bizirik atera den horietako bat, edota bi talde hauetako batean dagoen norbaiten senitartekoa. Hildakoez gain, 1994-2000 urte bitartean, kalkuluen arabera, 600.000 hutu garaiko Zairen (egungo Kongoko Errepublika Demokratikoa) errefuxiatu ziren. Gainera, logikoaenez, hainbeste hildako egoteak haur umezurtzen eta emakume alargunen izugarritzko gorakada. Hau guzti hau gutxi balitz bezala, milaka eta milaka emakume bortxatuak izan ziren genozidioan zehar; honek, HIESaren eta VIHren ehuneko oso altuetan handitu ziren.

Ruandatik at ere ondorioak izan zituen genozidio honek. Ikusi dugun bezala, garaiko Zairera hutu ugari heldu ziren, baina Burundi eta Ugandara baita. Errefuxiatuen olatu hau garaiko Zaireri gerta zekiokkeen gauza txarrenetako bat izan zen; herrialdea krisi politiko sakon baten murgildua zegoen, eta honek zer esana izan zuen Kongoko Gerren garapenean.

Genozidioa bukatu bezain laster, Ruandako Gobernuak genozidioan parte hartu zuen jendea atxilotzen hasi zen, baina 1995. urteko maiatzaren 25erako egoerak soilik partehartzaile nagusiak atxilotzea ahalbidetzen zuen, espetxeak jendez gainezka baitzeuden. Ideia bat egiteko, 1996. urterako 120.000 preso inguru zeuden Ruandar espetxeetan, eta 2019an Espainiar estatu osoan 59.129. Bi herrialde hauen dimentsioak konparatzen baditugu, tasa izugarri handia zen Ruandan.

1999. urterako, espetxeen kolapso hori auzitegiataraz ere zabaldu zen. Ezinezkoa zen Ruandar auzitegiarentzat hainbeste preso prozesatzea, esaterako, urte horretan bertan 120.000 preso horietatik, 5000 bakarrik zeuden prozesatuak. Martxa horretan, hamarkada ugari beharko ziren denak prozesatzeko. Gainera, bi faktore hauetaz gain, eta 1994-2000 bitartean Ruandar presidente izandako Pasteur Bizimungu<sup>10</sup> esan bezala, Ruandar gizarteak dilema bat zuen; genozidioan gertatutakoari irtenbide bat bilatzea beharrezkoa zen, baina justizia penal konbentzionala baino modu alternatibo eta ulergarriago batean.

Puntu honetan, eta zailtasun hauei aurre egiteko, Justizia Trantsizionalaren ordua iritsi zen.

---

<sup>10</sup> Pasteur Bizimungu 1950ean jaio zen eta Ruandako presidentea izan zen 1994-2000 bitartean

### **3. JUSTIZIA TRANTSIZIONALAREN** **IKUSPEGITIK HARTUTAKO NEURRIAK**

Ruandak Justizia Trantsizionalarekiko duen erronka benetan izugarria da.

Genozidioaren basakeria kontuan hartzen baldin badugu, eta honi faktore geografiko, demografiko, ekonomiko eta politikoak gehitzen badizkiogu, argi eta garbi gelditzen da ezaugarri asko hartu behar direla kontuan modu efektibo batean erantzun bat ematerako orduan.

Aurreko atalean aipatzen den bezala, preso ugari zeuden, eta honen arrazoia Ruandar gobernuak baliatutako estrategia da. Gobernuak bere indar guztia prozesu kriminaletara bideratu zuen, baina espetxe eta auzitegien kolapsoak beste irtenbide bat bilatzera behartzea ekarri zuen. Hala ere, nahiz eta lehenengo atalean esan bezala justizia trantsizionalaren bidez jarduteko bide ugari dauden, Ruandar kasuan esfortzuak erantzukizunean zentratu dira ia esklusiboki. Esaterako, erreforma instituzionala ez da inoiz Ruandaren ikuspuntutik helburu nagusietako bat izan. Azken finean, RPFa boterera heldu zen genozidioa amaitzean, eta gaur egun ere Paul Kagame da presidentea, geroz eta diktatore itxura handiagorekin gainera.

Konponketa edo erreparazioei dagokienez, 1996.urtean Lege Organiko bat sartu zen indarrean Ruandan. Lege horretan bertan, konpentsazio-fondo bati buruz hitz egiten zen, eta honek bi konpentsazio mota ezberdin aurreikusten zituen: alde batetik, genozidioan parte hartu zutenen kosta judizialak ordaintzeko konpentsazio bat, hau da, akusatuek ez zuten adina diru kosta judizial horiek ordaintzeko eta beraz fondo honen bidez ordaintzeko aukera ematen zitzaien; eta bestetik, biktimentzako beste konpentsazio mota bat. Urte askotan zehar, Ruandar biztanleriak ez zuen fondo honek aurreikusitako dirurik ikusi, Ruandar gobernuaren esanetan ezinezkoa zelako herrialdearentzat honelako diru kantitate bat ordaintzea. Konpentsazio kasuak eman dira, baina ez da joera orokorra izan. Beraz, esan dezakegu, erreparazio ekonomikoak ez duela arrakastarik izan.

Ruandan justizia trantsizionala erantzukizunaren ikuspuntutik erabili izan da, eta honek prozesu judizialek eramatzen gaitu. Egoera honetan, eta Ruandar justizia-sistema konbentzionalak funtzionatzen ez duela ikusita, bi motatako epaitegi edo auzitegi ezberdinen jarduera ezinbestekoa izan da. Bi auzitegi hauek ICTR (International

Criminal Court for Rwanda) eta *gagaca* auzitegiak dira, oso desberdinak bata bestearengandik, baina gatazkari irtenbide bat emate aldera, batera existitzera behartuak, nahiz eta bakoitzak jarduteko modu desberdina izan.

### **3.1 GAGACA COURTS**

Historikoki, Ruanda nekazal gizartea izan da, familian oinarrituta. Kolonia aurreko garaian, *gagaca*, komunitatean errespetatuak ziren agure edo pertsona nagusien arteko bilkura zen, komunitate horretako bakea eta harmonia mantentzeko erabilia. *Gagaca* hitzaren esanahia belar txikia da eta honek zentzua dauka, tradizionalki bilera hauek belarraren gainean, zelaietan, izaten zirelako. Beraz, *gagaca* auzitegiei buruz ari garenean, belar gaineko justiziari buruz ari gara.

Bilera hauetan gai ezberdinak lantzen ziren, hala nola: familia edota komunitate gatazkak; lursailen jabego, edukitza edota erabilpen eskubideei loturiko gatazkak; suertatu zitezkeen kalte ezberdinak; ganaduaren jabegoa; oinordetza eta ezkontza, eta abar. Prozesu honek gizabanako eta familiei beren liskar eta gatazkak konpontzea ahalbidetzen zien, eta emaitzak desberdinak izaten ziren. Esaterako, posible zen kaltea sortu zutenek alderdi kaltetuei barkamena eskatzea; posible ziren baita ere konpentsazioak edota barkamen eskaera eta konpentsazioak aldi berean. Hala ere, are garrantzitsuago zen *gagaca* auzitegi hauek bergizarteratzeari buruz zuten ikuspegia, auzitegi mota honen ezaugarri nagusienetako bat hura zelako, hau da, kaltea eragin zuen gizabanakoaren bergizarteratzea komunitatearen harmonia eta ordena soziala mantentzeko.

Historia kolonialera atzera eginez, Belgikak Ruanda kolonizatu zuenean, mendebaldeko sistema judizialean oinarritutako sistema judiziala ezarri zuen. Honek *gagaca* auzitegien legitimazioa gutxitu zuen, hauek bigarren plano batean kokatuz. Hala eta guztiz ere, *gagaca* auzitegiak mantendu egin ziren, autoritate kolonialak barneratu gabe gatazka lokalei edo komunitate gatazkei irtenbide bat emateko.

Genozidioa eta gero, Ruandar sistema judizialaren kolapsoa gertatu ondoren, *gagaca* auzitegiak garrantzitsu bilakatu ziren, baina kasu hontan “Inkiko Gagaca” izenarekin, prozesu berri bat zena. Prozesu berri hau *gagaca* prozesu tradizionalaren oso antzekoa zen, ia-ia berdina, baina aldaketa nabarmen batekin: Orain, gobernuak, *gagaca* auzitegiak formalki antolatu eta errekonozitzen zituen. Gainera, errekonozimendu hau

lege organiko batean isladatu zen: *Rwandan Transitional National Assembly Organic Law 40/2000 of January 26, 2001.*

*Gagaca* auzitegien berrikuntza hau 1999.urtean hasi zen, bost helburu nagusirekin: Gertatukoaren egia argitaratzea edo ezartzea; Genozidio krimenak burutzeagatik akusatuak zirenen prozesuak bizkortzea; zigorgabetasun edo inpunitatearen kultura erradikatzea; Ruandarren arteko errekonziliazioa eta batasuna berrezartzea; eta azkenik, Ruandar sozietateak dituen ezaugarri eta baliabideak kontuan hartuta gatazkei iretenbide bat ematea posible egitea Ruandar ohituran oinarritutako prozedura judizial baten bidez.

Prozesu honen ulermena bermatzeko, 1999.urtean baita ere, batzorde bat ezarri zen Kigaliko espetxe zentralerako atxilotuei *gagaca* prozesu honen funtzionamenduaren berri emateko. Honen ondorioz, espetxe horretan zeuden 1127 presok bere krimenak aitortu zituzten.

Bitartean, gobernuak *gagaca* prozesu berri hau lantzen jarraitzen zuen, eta 2001.urtean, urrian hain zuzen, Ruandarrek 260.000 *gagaca* epaile aukeratu zituzten, haien ospean, moralean, integritatean eta genozidioan izandako inplikazioan oinarriturik. 2002 ekainean, hauen funtzionamendua frogatzeko, 80 *gagaca* auzitegi zeuden martxan, eta abendurako 600 gehiago jarri ziren funtzionamenduan, bakoitza 19 epailekin. 2004ean, *gagaca* auzitegiek etenaldi bat egin zuten prozesuaren ahultasunak identifikatu eta zuzentzeko asmoarekin. Hau dela eta, auzitegiak berriro ere martxan ipini zirenean, 19 epaile beharrean, 9 epaile zeuden auzitegi bakoitzeko, eta epaile guztiek, 2006a baino lehenago (urte horretan aurreikusi baitzen nazio mailan bere benetako ezarpena), formakuntza gisako ikastaro bat egin zuten. Beraz, antolakuntza guzti honen ondoren, guztiz martxan zeuden auzitegi hauek eta 2009rako 12013 auzitegi zeuden, guztira 169.442 epailerekin.

*Gagaca* prozesuaren faseei erreparatzen badiegu, bi fase daudela ikusiko dugu: lehenengoa, informazio bilketaren fasea; eta bigarrena, epaiketa. Lehenengoari dagokionez, informazio bilketaren fase hau nahiko konplikatu eta luzea da, are gehiago egitateak kontuan hartzen baditugu. Fase hontan, akusazio eta testigantza guztiak jaso eta balioesten dira (hala badagokie), eta fasearekin amaitzeko epaileek susmagarri diren gizabanakoak kategoria ezberdinetan banantzen dituzte, haien ustezko delituetan oinarriturik.

Aurreko paragrafoan aipatutako kategoria horiek hiru dira, hain zuzen: lehenengo kategoria, zeinean bortxatzaileak eta buruzagitza posizioak okupatu zituztenak barneratzen dira; bigarren kategoria, hiru azpikategorietan banatuta dago. Lehenengo azpikategoria honetan hiltzaile ezagunak, torturatzaileak eta hildako gorpuetan gizatasunaren aurkako ekintzak burutu zituztenak kokatzen dira. Bigarren azpikategorian, hiltzaile arruntak, edota hiltzen saiatu baina lortu ez zutenak kokatzen dira. Bukatzeko, hirugarren azpikategorian hiltzeko helbururik ez zuten erasotzaileak barneratzen dira. Azkenik, hirugarren kategoria daukagu, eta bertan jabegoaren aurkako erasoak burutu zituztenak kokatzen dira.

Esan bezala, prozesuaren bigarren fasea epaiketa da. Epaiaketak 2006ko uztailean hasi ziren estatu mailan, eta toki ezberdinetan izaten ziren ustezko erruduna zein kategoriatan barneratuta zegoen kontuan hartuta. Esaterako, hirugarren kategoriakoak, hau da, larritasun maila txikiena zutenak, auzo edo komunitate txiki baten mailan gertatzen ziren; bigarren kategoriakoak sektore mailan, herri txiki baten antzekoak, hain zuzen. Lehenengo kategoriako kasuak, ordea, 2008.urtera arte Ruanda Auzitegi zibiletan izaten ziren, baina momentu batean, eta gehienbat denbora kontuengatik, *gagaca* auzitegiei jurisdikzioa zabaldu eta kasu batzuk eman zizkieten.

Kasu gehienetan epaiaketak akusatuaren bizilekuan izaten ziren, eta esan daiteke hau dela prozesu mota honen ezaugarri nagusietako bat, azken finean askoz errazagoa da bere inguruko biztanleek akusatuak egindakoaren berri izatea. Prozedura honelakoa izaten zen: lehenik eta behin, epaileek kasuaren artxiboa irakurtzen zuten altuan, zeinak akusatzaileen testigantzak barneratzen zituen; ondoren, epaileek eta bere komunitateko biztanleek akusatuak, akusatzaileek edota komunitateko edozein pertsonak esan behar zutena entzuten zuten; eta azkenik, epaileek haien artean eztabaidatu eta epaia ematen zuten publikoki. Epaia errekurritzea posible zen, eta herri berdineko beste epaile batzuek errebisatuko zuten kasua, hirugarren kategoriako kasuetan izan ezik. Kasu hauetan gatazka konponketa alternatibo bat proposatzea posible izaten zen, adibidez, konpentsazio modu bat zehazten duen alderdien arteko akordio bat. Egoera hauetan, epaileak aurrean egoten ziren eta akordioa balioesten zuten aproposa ikusten baldin bazuten.

*Gagaca* sistema hontan biziki garrantzitsua den beste parte bat sententzia da. Dakigunez, sistema honek egia eta errekontziliazioa bilatzen ditu, beraz, konfesioak

kontuan hartzen ziren sententzia ematerako orduan, are gehiago, pertsona batek krimen bat konfesatzen bazuen susmagarri ziren pertsonen lista batean egon baino lehen.

2007.urtean Ruandak heriotza zigorra abolitu zuen, beraz, kasu larrietan ere, hau da, lehenengo kategoriako kasuetan, zigorrik gogorrena biziarteko espetxe zigorra zen.

Baina goazen kategoriaz kategoriaz zigor posibleak ikustera:

- Lehenengo kategoriaz (bortxatzaile eta buruzagiak): biziarteko espetxe zigorra errudun deklaratu bazituzten konfesio gabe; 25-35 urte bitarteko espetxe zigorra konfesioa susmagarrien lista batean agertu ondoren egiten baldin bazen; eta azkenik, 20-25 urte bitarteko espetxe zigorra konfesioa susmagarrien lista batean agertu baino lehen egiten baldin bazen.
- Bigarren kategoriaz: lehenengo azpikategorietan kokatutako kasuetan (hiltzaile ezagunak, torturatzatzaileak...), 30 urte edo biziarteko espetxe zigorra konfesiorik gabe; 25 eta 29 urte arteko espetxe zigorra konfesioa susmagarrien lista batean agertu ondoren egiten bazen; eta 20-24 urte arteko espetxe zigorra listan agertu baino lehen konfesio egiten baldin bazen. Bigarren azpikategorietan kokatutako kasuetan (hiltzaile arruntak...), 15 eta 19 urte arteko espetxe zigorra konfesiorik gabe; 12 eta 14 urte arteko espetxe zigorra listan agertu ondoren konfesatuz gero; eta 8 eta 11 urte arteko espetxe zigorra listan agertu baino lehen konfesatuz gero. Azkenik, hirugarren azpikategorietan kokatutako kasuetan (hiltzeko asmorik ez zuten erasotzaileak), 5 eta 7 urte arteko espetxe zigorra konfesiorik gabe; 3-4 urte arteko espetxe zigorra listan agertu ondorengo konfesioen kasuan; eta 1-2 urte arteko espetxe zigorra listan agertu baino lehenagoko konfesioen kasuan.
- Azkenik hirugarren kategoriaz (jabegoaren aurkako erasotzaileak) daukagu. Kasu hauetan ez zen inolako espetxe zigorrik ezartzen, baina bai ordea, erreparazio zibilak.

Hala ere, ikusi berri dugun zigor posibleen eskema hau teorikoa zen, praktikan, bigarren kategoriako kasu ez hain larrietako sententziak, askotan, bertan behera gelditzen ziren eta zati bat gizarte langintza bidez konpentsatu eta beste zatia kustodian gelditzen zen, badaezpada.

Aurreko ataletan aipatutako sistema judizialaren kolapsoa burura ekarriz, esan daiteke *gagaca* auzitegiak benetan efektiboak izan zirela. 1999.urtean 120.000 presotik 5000 soilik zeuden prozesatuak, baina *gagaca* auzitegiek 2009.urterako, 1.1 milioi kasu

aztertu zituzten. Ruandar auzitegi zibilek 1997 eta 2004 artean 10026 kasu aztertu zituzten eta orain aztertuko dugun ICTR-ak 2010eko apirilerako 50 kasu aztertu zituen bakarrik.

### **3.2 INTERNATIONAL CRIMINAL COURT FOR RWANDA (ICTR)**

Genozidio aurreko Ruandar sistema judiziala ustelkeriz josita zegoen. 700 epaile zeuden, baina 700 horietatik 50 inguruk bakarrik zuten ezagutza legala. Egoera honen aurrean, Ruandar gobernuak Nazio Batuen Erakundeari laguntza eskatu zion genozidioaren arduradunak prozesatzeko. Eskaera honen aurrean, Segurtasun Kontseiluak ICTRa sortu zuen 1994ko azaroaren 8an, Tanzaniako hiri batean, Arushan hain zuzen, baina genozidioaren zuzendari edo arduradun nagusien kasuak aztertzeko soilik.

Momentu hartan, antzeko nazioarteko epaiketen hiru aurrekari zeuden soilik: Bigarren Mundu Gerra osteko Nuremberg eta Tokioko epaiketak, eta 1993. urtean Yugoslaviar gatazkari irtenbide bat emateko sortutako “International Criminal Court for Yugoslavia” (ICTY) delakoa. Beraz, ideia hau ez zen guztiz berritzailea, baina ez zen oso ohikoa.

ICTRa ezarri zenean, Ruandar gobernuarengandik kritika ugari jaso zituen, gehienbat burokrazia kontuengatik, eta heriotza zigorraren aurka egoteagatik, baina hala ere Nazio Batuen Erakundeak kontu handiz jardun zuen akusatu guztientzat bidezko epaiketa bat bermatzeko, hori baitzen helburu nagusietako bat. Auzitegi honen ikuspuntu gehiago zentratu zen erretribuzio edo ordainsarian, berradiskidetze edo errekontziliazioan baino.

ICTRaren egiturari erreparatzen badiogu, funtsean, bera baino urte bat lehenago ezarritako ICTYaren egitura berbera zen. Hiru epaiketa ganbera zeuden, eta apelazio ganbara bat, 16 epailez osatuta, bakoitzak nazionalitate ezberdina zuelarik. Ganbara hauetaz gain, administrazio eta laguntza talde ezberdinak daude, hala nola: “*Office of the Prosecution*” eta erregistro, kontseilu, eta bestelako sekzio desberdinak aipatutako ganberen lana erraztu eta behar duten laguntza juridiko edota administratiboa eskaintzeko. Hau kontuan hartuta, eta Ruandar Auzitegi zibil eta *gagaca* auzitegiekin konparatuz, ulergarria litzateke Ruandar gobernuaren kritika.

Esan bezala, auzitegi hau genozidioaren zuzendari eta arduradun nagusiak prozesatzera bideratua zegoen, eta hori dela eta, bere jurisdikzioa oso zehatza zen. Bere eskumena

gizateriaren aurkako eta gerra krimenetara mugatzen zen, baina hala ere, lehen mailako eskumena zuenez, Ruandan ospatzen ziren epaiketei erreparatu eta berari transferitzea eska zezakeen.

Nazioarteko elementu ugari zituen Arushan (Tanzania) kokatua egoteaz gain. Behin baino gehiagotan aipatutako herritarren migrazioak zirela medio, ustezko errudunen atxiloketak hainbat herrialde tartean egotea eragin zuten, hala nola: Tanzania, Kamerun, Kenia, Benin, Boli kostea, Namibia, Togo, Zambia, Burkina Faso, Mali, Kongoko Errepublika Demokratikoa, Hegoafrika, Belgika, Suitza, Herbehereak eta Amerikako Estatu Batuak. Hau ez zen soilik gertatu ustezko errudunek estatu hauetara ihes egin zutelako, baizik eta krimenen lekuko asko ere ihesi joan behar izan zirelako, eta haien testigantzak jasotzeko herrialde hauen inplikazioa beharrezkoa bilakatu zen. Hau guzti hau gutxi balitz, ICTRan lan egiten zuten langile guztiak kontuan hartuta, 80 nazionalitate ezberdin aurki zitezkeen, eta gainera, ICTRaren sententziak Malin, Beninen, Swazilandian, Frantzian, Italian eta Suedian exekutatu dira, besteak beste.

1994.urtean sortu arren, bere lehenengo kasua 1997.urtean hasi zen, eta 2010.urtera arte 36 kasu ebatzi zituen, beste 8 apelazio ganberan zeuden eta urte horretan 22 kasu aztertzen zegoen. *Gagaca* auzitegiekin alderatuz zifra oso baxuak dira, are gehiago bere aurrekontuari erreparatzen badiogu, 2010-2011 urteetarako 245.295.800 dolarreko aurrekontua baitzuen. Gainera, 1994-2008 urte bitartean auzitegi honen kostua 1.1 bilioi dolarrekoa izan zela kalkulatu da, jakinda 2015eko abenduaren 31an itxi zituela bere atea, auzitegi honek eragindako gastuak izugarriak izan dira.

Egia da gastuaren ikuspuntutik, esan dezakegula ez zela efektiboa izan, baina hala ere bide oso garrantzitsu bat zabaldu zuen: Historian genozidio krimenagatik ezarritako lehen zigorra auzitegi honetan gertatu zen, “*Akayesu*” kasuan hain zuzen. Kasu honetan, Jean-Paul Akayesu izeneko gizon bat, Taba izeneko Ruandar hiriaren alkate ohia, genozidio krimenagatik errudun deklaratu izan zen krimen honen sustatzaile eta partehartzaile izateagatik. Nurembergeko auzitegiaren garaian, nahiz eta fiskaltzak genozidio krimenagatik kondenatzea eskatu, auzitegiak ez zuen aurrera jarraitu eta beraz, Ruandar genozidiora arte itxaron behar izan zen genozidioagatik lehen kondena ikusi arte. Akayesu jaunak lehenengo garaiko Zairera egin zuen ihes eta ondoren Zambiara. 1995ko urrian atxilotu zuten Zambian bertan eta ICTRaren aurrean epaitu



ondoren biziarteko espetxe zigorrera kondenatu zuten. Egun, Maliko espetxe batean dago bere zigorra betetzen.

## **4. GAGACAREN ALDEKO ETA KONTRAKO ARGUDIOAK**

Megan.M. Westberg<sup>11</sup> autoreak, “*Rwanda`s use of Transitional Justice after Genocide: the Gagaca courts and the ICTR*” izeneko artikuluan egindako alderdi positibo eta negatiboen azterketan oinarrituz, *gagacaren* aldeko eta kontrako argudioak aztertuko ditugu. Dakigunez, justizia trantsizionalak jakintza alor ezberdinak batzen ditu, hala nola, alderdi judizialaz gain alderdi soziala ere hartzen du kontuan, eta hau da zalantzarik gabe *gagaca* auzitegiek egiten dutena, beraz, esan daiteke *gagacak* planteatzen duena justizia trantsizionaletik hurbilago dagoela ICTRak planteatzen duena baino. Hau guzti hau jakinda, *gagaca* auzitegien aldeko argudioak lau multzotan bananduko ditugu: abantaila ekonomikoak, onura sozialak, Ruandar biztanleriarentzat ekarritako onura psikologikoak, eta azkenik, abantaila kulturalak.

Aurreko atal batean Ruandaren egoera ekonomikoari gainbegirada bat eman genionean, herrialde oso txiroa dela ikusi genuen. Hori dela eta, aspektu ekonomikoak garrantzia izan zuen genozidioari aurre egiterako orduan, ez soilik estatuaren ikuspegitik, baizik eta biztanleriaren ikuspegitik ere. *Gagaca* auzitegien abantaila ekonomikoei erreparatzen badiegu, burura etortzen zaigun lehengo gauza kostua da. Ikusi dugu ICTRak sekulako gastuak eragin zituela, baina *gagaca* auzitegiak berriz, auzo edo herri mailan kokatuak zeuden, eta literalki belarraren gainean egiten ziren, beraz, azpiegituren ikuspuntutik ez zen ia inolako gasturik sortu. Honetaz gain, epaileen ordainsariak oso baxuak ziren, eta hasiera batean ez zuten inolako ordainsaririk jasotzen eta honek abantaila ekonomiko bat suposatzen zuen, baina estatuaren ikuspegitik. Biztanleriarentzat abantaila ekonomiko bat abokatuen erabileran zegoen, edo hobeto esanda, abokatuen ez erabileran. *Gagaca* auzitegiak abokatuen presentzia ezabatzen zuten, eta horren orde zegoen edozein pertsonaren esanbeharrekoa entzuten zuten epaileek, era horretan akusatuei abokatuaren ordainsaria aurreztuz. Alderdi

---

<sup>11</sup>University of Kansas school of Law-ko irakaslea

ekonomikotik kontuan hartu beharreko beste faktore bat denborarena da. Genozidioaren hasieran Ruandar Auzitegi Zibiletan ospatzen ziren epaiketak, baina oso poliki zihoazten eta gainera kolapsatu egin ziren hainbeste presorekin. *Gagaca* auzitegiek egoera hau zeharo konpondu zuten eta era horretan, ez zioten soilik genozidioari irtenbide efektibo eta azkar bat eman, baizik eta diru asko aurreztu zela ere haien jardunarekin. Aipagarria den azken faktorea espetxeen mantenua da. Hasiera batean 120.000 preso inguru zeuden Ruandako espetxetan, eta honek sekulako gastua ekartzen zuen, janaria, langileen ordainsaria eta bestelako mantenuak ordaindu behar zirelako. Esan bezala, praktikan, *gagaca* auzitegiek emandako sententzia asko bertan behera gelditzen ziren oso larriak ez baziren, edota espetxe zigor ez hain luzeak ezartzea posible zen, eta honek espetxeen kolapso eta mantenuan asko lagundu zuen.

Aztertu beharreko bigarren abantailak alderdi soziala barneratzen du, azken finean *gagaca* auzitegien helburu nagusietako bat birgizarteratzea zen, eta alderdi horretatik benetan efektiboa izan zen. Lehenik eta behin, *gagaca* auzitegien aspektu garrantzitsu bat jendearen partehartzea zen, eta honek onura ugari ekarri zituen. Gizarteak genozidioan gertatutakoa argitzen lagundu zuen, bere etxetik hurbil, bere senitateengandik hurbil, eta bere inguruko jendearen testigantzak entzuten, era horretan akusatuen birgizarteratzea eta orokorrean Ruandar gizartearen normalitaterako bidea errazago eginez. Hau gutxi balitz, *gagaca* auzitegiek sententzien laburpena defendatzen zuten eta honek errudunak zirenak haien ohiko bizitzara azkarrago bueltatzea suposatzen zuen, birgizarteratzea lagunduz. Gainera, Ruanda bateratuago bat eraikitzeko ahalegin handiak egin ziren *gagaca* auzitegien bitartez. Horren froga Ruandar konstituzioan dago, zeinak dagoeneko ez duen Hutu eta Tutsien bereizketarik egiten, ruandar biztanleria guztia talde edo klase sozioekonomiko berebanean sartuz.

Aipagarria den hirugarren abantaila, psikologikoa da. Jakina denez, zuzenbide penal konbentzionalak zigor teoria ugari barneratzen ditu, besteak beste, erretribuzioaren teoria, errehabilitazioaren teoria, eta abar. Kontua da *gagacak* zigor teoria guzti hauek hartzen dituela kontuan, eta zigorra aplikatzerako orduan aplikazio modu honek eragin psikologikoak ditu, ez soilik akusatu edo errudunarengan, baizik eta gizarte edo kasu honetan komunitate guztiarengan. Testuinguru honetan, *gagacak* aspektu ezberdinak aurkezten ditu, hala nola, biktimekiko konfrontazioa gertatzen da, espetxe zigorrak ezartzen dira, edota birgizarteratzeari begira komunitatearen garrantzia nabarmentzen da. Gainera, errudun bat bere zigorra bete ondoren bere komunitatera itzultzean, bera

akusatu zutenen artean bizi behar da, eta askotan bere biktimetzat zerbitzuak egin, haien lurak landuz, esaterako, edo konpentsazio ekonomikoak emanaz hirugarren kategoriako delituen errudun direnen kasuan. Modu honetan eragindako mina konpentsatzen saiatzen da, eta aldi berean komunitate eta herrialde bateratu bat eraikitzeko bidea zabaltzen da, hori baita beste helburuetako bat. Nahiz eta gertatutako sarraskia ahaztezina izan, eta bere ondorioak urteetan zehar mantenduko diren, *gagaca* auzitegien bidez gizarte gisa aurrerapasoak ematea bilatzen da.

Azkenik abantaila kulturali buruz hitz egin behar dugu, lehenik eta behin argi eta garbi azpimarratuz neurri oso handi batean genozidioan gertatutakoari erantzun bat eman zaiola *gagaca* auzitegien bidez, hau da, Ruandar historian zehar gatazkak konpontzeko oinarrian egon den sistema (berritua, baina funtsean berdina) baten bidez, eta Ruandar gizarte osoaren parte hartzearekin. Beraz, hau kontuan hartuta, Ruandar kultura errespetatzen duen sistema judizial alternatibo honek askoz ulergarriagoa eta hurbilagoa egin du gatazkaren konponketa Ruandako biztanleriarentzat. Ruandako Auzitegi Zibilek edo ICTRak kasu gehienak ebatzi izan balituzte biztanleriaren portzentai oso altu batek ez luke ulertuko, prozesua askoz mantsoagoa izateaz gain, askoz konplexuago izango lizateke, gehienbat arlo prozesaletik. Belgikak *gagaca* bigarren plano batera bidali zuen, baina genozidioa eta gero errekuperatzeak, Ruandar kulturaren sustapena eragin du, aldi berean, Ruandar bateratu baten ideia plazaratuz. Abantaila kultural nabarmenekin bukatzeko, ez dugu aspektu oso garrantzitsu bat ahaztu behar, gizartearen partehartzeak, komunitate edo herri mailan konpontzeak, eta jendearentzat ulergarria eta konponketa bere sistema tradizional baten bidez gertatzeak, datozen belaunaldietan eragin izatea espero da, hau da, historia ezagutuz eta gizarte gisa aurrera egiteko egin diren ahalegin guztiak kontuan hartuta, belaunaldi gazteen mendekua ekiditzea da beste helburu nagusietako bat.

Orain arte aldeko argudioei buruz aritu gara, baina egia esanda kontrakoak ere baditu, eta horiek aztertzea komeni da. Lehendabizi, *gagaca* prozesuaren lehen fasean, hau da, informazio bilketaren fasean zenbait arazo aurkitu ziren. Alde batetik, informazio bilketaren izaera ez hain formalak frogen suntsipena ekarri zuela adierazi zuen Ruandar gobernuak; bestetik, analfabetismo tasa altuak eta landa eremuko bizimoduak ere oso zaila egin zuten jendearen testigantzak jasotzea; eta azkenik, jende asko ez zegoen prest bere testigantzak kontatzeko, eta hau funtsezkoa zen *gagaca* auzitegiek aurrera egin ahal izateko. Beste arazo nabarmen bat akusatuen ihesaldian zegoen, hau da, Ruandak

zituen baliabideekin akusatu batek komunitatea uztea lortzen baldin bazuen, oso zaila zen berriro ere justiziaren aurrera ekartzen lortzea. Ondoren, bestelako kontrako argudio ezberdinak suertatu ziren, gehienbat mendebaldeko sistema judizialak duen justiziari edo bidezko epaiketari buruzko kontzepzioa dela eta. Esan bezala, ez zegoen abokaturik, epaileak beren ospea eta integritate moralagatik aukeratzen ziren, hau da, arrazoi nahiko subjektiboak erabiliz; gainera, epaile askok ez zuten ezagutza legal sakonik. Bestalde, bidezko epaiketa bati loturiko eskubideen urraketak ere gertatu zirela salatu izan da, kasu askotan akusatuei komenigarriagoa zitzaielako konfesio faltsu bat ematea espetxe zigor luzeago bat ekiditzeko, eta era horretan, kasu eta krimen asko aztertu gabe gelditzen ziren. Amaitzeko, eta serioki hartzeko moduko kontu bat da, Ruandar gobernuak erraztasun asko zituen *gagacak* ebatzitako prozesuetan eskuhartzeko, modu horretan independentzia judizialaren oinarritzko printzipioa urratuz.

Beraz, eta laburbilduz, *gagaca* sistema nahiko efektiboa izan zen Ruandar gizarteari erantzunak eman eta hauen partehartzea ahalbidetzeko, besteak beste; baina hala ere, sistema judizial gisa, eta guk Europan dugun justiziaren kontzepzioari erreparatuz, jurisdikzio nahiko ahula izan zen.

## **5. ICTRaren ALDEKO ETA KONTRAKO ARGUDIOAK**

Oso bitxia da, baina kasik esan daiteke *gagacaren* kontrako argudio edo ahultasunak ICTRaren alderdi positiboak direla, eta alderantziz. ICTRa oso ondo eta zehazki antolatutako auzitegi bat zen, eta gainera, bere bizkarra zaintzen nazioarteko erakunde garrantzitsuenetariko bat zuen, Nazio Batuen Erakundea, hain zuzen. Honek, mendebaldeko sistema judizialean oinarritutako epaitzeko modua ezarri zuen, gatazka nazional bat nazioarteko eskemara edo mapara plazaratuz. Prozesuari erreparatzen baldin badiogu, aspektu prozesala oso zaindua zegoen, akusatuen eskubide guztiak errespetatu eta bermatzen ziren, alegia. Hontaz gain, froga ikuspegitik eta atxilotuak bere aurrera ekartzeko ere, bere esku zituen baliabideekin ez zuen arazo handirik izan, eta gainera *gagaca* baino askoz mantsoagoa izanik, akusatuari bere argudioak eta lekukoak epaiketara ekartzeko aukera askoz zabalagoa eskaintzen zion. Beste alde batetik, nahiz eta kasu oso gutxi ebatzi, bere helburua genozidioaren sustatzaile eta

zuzendari nagusiak prozesatzea baitzen, lan txukuna egin zuen Ruandarentzat, aipatutako sustatzaile eta zuzendari nagusi horien kasuak ebatziz eta hauek zigortuz. Arestian esan bezala, kritika ugari jaso zituen, gehienbat bere kostuagatik eta oso poliki mugitzeagatik, baina hau guzti hau aldera batera utziz, nazioarteko auzitegia zenez, legitimazio maila oso altua zuen mundu mailan, eta hau oso garrantzitsua izan zen hainbat aspektutan: alde batetik, beste herrialde batzuen inplikazio oso nabaria izan zen; eta bestetik, eta ICTYak Yugoslavian egin bezala, ICTRa aurrekari oso garrantzitsua izan da etorkizunean antzeko epaitegi baten beharra izanez gero, prest gaudela, edo gutxienez, gatazka bati irtenbide ematerako orduan antzeko tresna bat erabiltzea posible dela.

Kontrako argudio edo alderdi negatiboei dagokioenez, lehenik eta behin, esan beharra dago, justizia trantsizionalaren ikuspuntutik ez zuela Ruandar gizarteak beharrezkotzat zuen justizia ekarri. Sustatzaile eta zuzendari nagusiak prozesatu zituen, baina ez zuen inolako ahaleginik egin Ruandar biztanleriaren errekontziliazioa edota gizartearen berreraikitzea sustatu edo bermatzeko. Gainera, egin duen lanaren eta gastu ekonomikoaren arteko balantza kontuan hartuz, beti leporatuko zaio ez dela nahikoa izan. Honetaz gain, beti egon zen Ruandatik urrun, bai kulturalki eta baita fisikoki ere. Hasteko, ez zen ezta Ruandan kokatu, Tanzanian baizik, eta honekin jarraituz, bere kasuak ebazterako orduan Ruandar kultura eta herriaren partehartzea ez zen batere kontuan hartu. Azkenik, proportzionaltasun arazo bat ere plazaratu zen. ICTRa heriotz zigorraren aurka zegoen, eta horren ordeztu espertxe zigor luzeak ezartzen zituen, *gagacak* lehenengo kategoriako atxilotuekin egiten zuen bezala. Hau gutxi balitz, ICTRak kondenatzen zituenak Ruandatik at betetzen zituzten haien sententziak, eta orokorrean espertxean zuten egoera askoz erosoago zen. Hau kontuan hartuta, askotan gertatzen zena honakoa zen, teoriarik krimen larrienak burutu zituztenek, haiek baino ekintza ez hain larriak burutu zituztenek baino kondena mesedegarriagoak lortzen zituztela.

## **6. HAUSNARKETAK ETA KONKLUSIOAK**

### **6.1 BELGIKA ETA FRANTZIAREN ROLA**

Orain arte, lan osoan zehar, gai ezberdinak landu ditugu, justizia trantsizionalaren aspektu teorikotik hasita, Ruandako kasu konkreturaino. Genozidioaren aurrekariak

lantzerakoan, 1959.urteko hutuen iraultzari eta ondoren datorren guztiari buruz hitz egitea da ohikoena, eta hala egin da lan honetan ere. Hala ere, ez dugu ahaztu behar Europar potentziek izandako rola, Frantzia eta Belgika zehazki, hauen eskuhartzeak eta influentziak egoeraren larriagotzea ekarri zuelako. Beraz, komenigarria litzateke, bukatu baino lehen, herrialde hauen paperari buruz pixkat hausnartzea.

Hasteko, esan beharra dago, 1994.urtean gertatukoaren ekintzetan Belgikak ez zuela zuzenean parte hartu, baina ezin da inolaz ere ahaztu kolonialismoaren garaian Belgikak egindako kudeaketak eragin zituela hutuen eta tutsien arteko gatazkak. Bestalde, Frantziak Mitterrand presidentearen eskutik eskuhartze zuzena izan zuen esaterako 1990.urtean bizitako erasoetan, besteak beste. Hau jakinda, Ruandar gobernuak eta bere presidentearak, Paul Kagamek hain zuzen, Frantziari bota diote errua zenbait alditan, indarrean zegoen Hutu gobernuarekin erlazio oso estua zutelako. Gainera, akusazio hauek publikoki egin ditu askotan, esaterako, 2014.urtean, genozidioaren 20.urteurrena gogora ekartzeko aktu batean Paul Kagamek berriro ere Belgika eta Frantzia erruduntzat jo zituen, Tony Blair edo Ban Ki Moon pertsonaia famatuen presentzian adibidez.

Egia esanda, eta Belgika alde batera utzita, bere eragina askoz atzeragokoa baita, Kigali eta Parisen arteko harremanak gaur egun ere ez dira normalizatu. Horregatik, eta egoera hau amaitutzat jotzeko ahalegin batean, Emmanuel Macron Frantziar Errepublikako presidente denak, 2019an, Frantziak genozidioan izandako rola argitzeko batzorde bat osatu zuen. Batzorde hau 8 pertsonen osatzen dute eta presidentearak esan duen moduan, dokumentu militar eta zibil guztiak izango dituzte haien esku, Mitterrand presidentearenak barne. Bi urteko epea eman zien Frantziaren partehartzearen inguruko zalantzak argitzeko, beraz, pixkat bat itxaron beharko dugu azterketa honen emaitzak jasotzeko. Baliteke Frantziaren benetako inplikazioa zein izan zen jakitzeko Frantziak berak azterketa bat egiteak, guztiz inpartziala ez den egoera batera eramatea, baina hala ere, egiazko eta bidezkoak diren datuak ematea espero dugu.

Belgikar influentziarekin amaitzeko, aipagarria den datu bat aztertzea ondo legoke. 1994.urtean, Habyarimana presidentearen heriotza gertatu eta gatazkak hasi zirenean, Ruandako Lehen Ministroa erail zuten Kigalin, eta momentu horretan bera babesten zeuden 11 Belgikar Kasko Urdin baita. Honek ere eztabaida sortu zuen, eta Ruandar gobernutik askotan esan izan da Belgikak ere erlazio estua zuela garaiko hutu gobernuarekin.

## **6.2 JUSTIZIA TRANTSIZIONALA EGUNEROKO BIZITZAN?**

Beste alde batetik, ikusi dugun bezala, kasu askotan ez da behar sistema judizial konplexu eta formal bat jendearen beharrei aurre egiteko. *Gagaca* prozesua ez zen oso konplexua, eta egia esanda ez zen justiziaren kontzepzioa hobekien errespetatzen zuen sistema, alderdi negatibo ugari baitzituen. Baina hala ere, Ruandar gizarteari benetan lagundu zion, eta hori horrela izan zen *gagacak* Ruandaren alderdi soziala ezagutzen zuelako, *gagacak* Ruandaren alderdi kulturala ezagutzen zuelako, jendearekiko hurbila zelako, eta historikoki gatazkak konpontzeko sistema tradizionala izan delako. Hemendik ikasi behar duguna zera da, gizarteak benetan behar duen justizia eman ahal izateko, gizartearen beharrak eta alderdi sozioekonomikoa kontuan hartzea oso garrantzitsua dela, era horretan jendearekiko hurbilagoa den sistema judizial bat sortuz.

Hau jakinda, zer nolako etorkizuna espero dezake justizia trantsizionalak? Hasierako atal batean ikusi genuen munduan zehar oso presente egon dela eta dagoela gaur egun ere, baina printzipioz beti trantsizio egoera bati lotuta, eta honek asko mugatzen du bere aplikazio eremua. Imajina dezakegu justizia trantsizionala gure eguneroko bizitzan? Egia esanda, eta bere definizioak esaten duen moduan, ez dago horretarako pentsatua, sistema judizial konbentzionalak erantzun ezin duenean erabiltzen da. Halere, oso interesgarria izango litzateke justizia trantsizionalak erabiltzen dituen mekanismoak gure sistema judizial konbentzionalera eramatea, askotan benetan baliagarriak izango liratekelako. Ildo honetan, behin eta berriz errepikatzen ari den ideia bat “*Justicia Restaurativa*” edota “*Justicia Reparadora*”-ren ideia da. Honek zerikusi oso handia du justizia trantsizionalarekin, eta mendebaldeko sistema judizialekin ezartzen hasi da, geroz eta garrantzi handiagoarekin. Honen bidez, gatazkaren erdigunean biktimen edota errudunen beharrak jartzen dira eta justizia zigortzailearen ideia alde batera uzten da. Nork daki, baliteke urte batzuen buruan justizia mota honek gure sistema judizialen barnean izango duen presentzia handiagotzea, ez da justizia trantsizionala izango, ez dituelako hau izateko beharrezko diren ukanbeharrak beteko, baina honen ideia batzuk eguneroko bizitzako justiziara lekualdatzea posible da.

Justizia trantsizionalaz hitz egiterako orduan, paradoxa bat plazaratzen da. Alde batetik, eta askotan frogatu izan den bezala, abantaila ugari dituen justizia mota bat da, eta bere garapenari eta zabalkuntzari dagokionez, positiboa da gizarteari onurak ekartzen dizkiola jakitea; baina, hala ere, eta beste ikuspuntu batetik ikusita, justizia

trantsizionalaren presentziak Giza Eskubideen urraketa masiboak gertatu direla esan nahi du, eta ez dago esan beharrik hau oso negatiboa dela. Beraz, nola bukatu dezakegu paradoxa honekin? Egia esanda, oso zaila da balantza non dagoen zehaztea, baina loturik bizitzera behartuta dauden bi faktore dira: zenbat eta Giza Eskubideen urraketa gehiago, justizia trantsizionalaren presentzia eta garapena handiagoa izango da, eta alderantziz. Hau dela eta, argi eta garbi dago justizia trantsizionala ez zela existituko gizakiok Giza Eskubideak urratuko ez bagenitu, eta hau jakinda, justizia trantsizionalaren bidez herrialde zehatz bateko gizartea laguntzen denean, pozik egotekoa da, baina poztasun hori moderatua izan behar da, puntu horretara iritsi ahal izateko aurretik sufrimendu itzela egon delako.

## **7. BIBLIOGRAFIA**

- International Center For Transitional Justice (<https://www.ictj.org/es>)
- Ruti G. Teitel, *Genealogía de la Justicia Transicional*, 2003
- Naciones Unidas; *Justicia Transicional y Derechos Económicos, Sociales, y Culturales*; 2014
- Lars Waldorf (ICTJ research unit); *Transitional Justice and DDR: The case of Rwanda*; June 2009
- Maguemati Wabgou; *Experiencias Posconflicto de países africanos: Justicia Transicional en Ruanda*; 2013
- Megan M. Westberg; *Rwanda's use of Transitional Justice after Genocide: The *Gacaca* Courts and the ICTR*; 2010
- Akayesu Judgement Case No. ICTR-96-4-T
- Ryszard Kapuscinski; *Ebano*; 1998



- Farid Benavides, Oscar Mateos Martin y Blanca Camps Febrer; Límites y desafíos de la Justicia Transicional en las nuevas transiciones: un análisis crítico a partir de los casos de Sierra Leona, Marruecos y Colombia; 2018
- Joxerramon Bengoetxea; The Unique Basque Peace Process: Linking Basque and European Generations for Global Transitional Justice